



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA  
2019/03/27

## **Bizkaiko Batzar Nagusietako Agintaldi honetako azkenengo Osokoak aho batez onetsi dau Aldundiaren eta sektoreko alkarteen eta profesionalen partaidetza izango daben artisautzako mahaien eraketea, jarduera hori bultzatu ahal izateko**

Bizkaiko artisautza sektorea bultzatzeko proposamen zehatzak eta partaidetzan oinarritutakoak, indar politiko guztien adostasuna lortu dau gaur, Gernikako Batzarretxean egin dan agintaldi honetako azkenengo Osokoan. Podemos Bizkaia taldeko Neskutz Rodríguez batzarkideak aurkeztu dau itaunetik sortutako mozinoa. Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek alkarregaz aurkeztu daben zuzenketa-eske transakzionalagaz aldeko 49 boto positibo lortu ditu, Bizkaiko Batzar Nagusietako ordezkari guztiena, hain zuzen be.

Bizkaiko Batzar Nagusiek artisautzako mahaiak martxan jarteko eskatuko deutesie Foru Aldundiari, artisautzan aritzen diran alkarteen eta personen partaidetzeagaz, artisautzaren sektoreak lurraldean dituan lehenengoko ildoak eta ardatzak gauzatzeko helburuagaz. Eztabaidak agerian itzi dau Neskutz Rodríguez Podemos Bizkaia taldeko batzarkideak artisautzaren sektorearen ganean daukan ardura berezia, gaiaren inguruan ekimen eta erantzun-eske asko planteau ditualako. Rodríguezek, partaidetzan oinarritutako mahaien proposamen horren bitartez sektorea dinamizau eta indartu beharra defendidu dau, adierazo dauenez, une honetan “erabagietatik kanpo geratzen ari diran artisauen %63 dagolako”.

Josu Montalbánek (Euskal Sozialistak) azpimarratu dauenez, artisautzea “artearen bariante bat da, eskuak eta, gehienetan, produktu naturalak, erabiliz egiten dana”. “Garrantzitsuena sektorea indartzea da, adierazo dau Aitor Ibarak (Euzko Abertzaleak), eta pozik agertu da, “oraingo honetan politikaren artisau onak izatea lortu dogulako”.

Taldeen txandan, Arturo Aldecoak defendidu dau beharrezkoa dala “krisialdi larrian dagon sektorerako” proposamena, eta Podemos taldea defendidu dau, artisautzaren alde egin dauen behararengaitik. “Oso garrantzitsua da artisautza sektorea bultzatzea eta eguneroko jardunean neurriak martxan jarten laguntzea”, defendidu dau Jesús Isasik (Bizkaiko Talde Popularra).

Joseba Gezaragak bere taldearen, EH Bilduren, aldeko botoa iragarri dau, sektore “dinamikoa, etorkizuna eta bideragarritasuna daukana, baina laguntzea behar dauena” dala esanez.

### **Behar besteko aldeko botorik lortu ez daben mozinoak**

Osokoak, joan dan zezeilaren 27an Kontroleko azkenengo Osokoan egindako beste horrenbeste itaunetatik eratorritako bi mozino jasoten ditu. Mikel Kormenzanak eta David Lopategik (EH Bildu) aurkeztu dabe lehenengoa, Bizkaiko Foru Aldundiari eskaria egiteko, “bere eskumenen barruan, Bizkaian baso lurren metaketari aurre egiteko neurri gehigarriak martxan jarteko”.

Talde gehienek proposamenaren zehaztasun faltea aitatu dabe. Hori dala eta, bere bigarren esku-hartzean, mozinoak proposamen zehatz bi jasotzen ebazala azaldu dau Kormenzanek: Aldundiak basoko lurak erosteko politikea gauzatzea, Aldundia bera jaube dan lurren ondokoetatik, bertako espezieak daukiezanetatik edo ingurumenaren aldetik balio berezia daukienetatik hasita, eta baita lurren kudeaketa orokorra be, “hemen existiduten ez dan arren Europako leku askotan egiten dan eta euren lurak kudeatu gura ez dituen jaubei lur horreek Aldundiari lagateko aukerea emoten deuten neurria”.

Arturo Aldecoa (Talde Mistoa) mozinoaren alde agertu da, baina parte batean bakarrik. “Baso arloko krisialdi baten erdian gagoz, eta hori konpontzeko bidea ez da lurak erostea”. Eduardo Andrések (Bizkaiko Talde Popularra), “mozinoak ez dauela ezer esaten” esan ostean, bere taldeak “20.000 persona baino gehiagori beharra emoten deutan egurraren sektorearen alde” egiten dauen apustua azpimarratu dau.

“Egungo egoera oso larria da, eta ez dator kasualidadez, Bizkaiko Foru Aldundiak aurrera eroan dituan politiketatik baino, eta baita kanpoko arazo batzuetatik be”, kritikau dau Josean Elgezabalek, Podemos Bizkaia taldearen izenean. Marimar Rodríguezek (Euskal Sozialistak), bere aldetik, arazoei aurre egin ahal izateko sektorearen partaidetzea derrigorrezkoa dala defendidu dau.

Jesús Lekerikabeaskoak (Euzko Abertzaleak) EH Bilduren proposamenak “kontraesankorrak” dirala esan dau, eta daborduko apliketan diran eta “jaube bakotxak zer landatu gura dauen erabagiteko” aukerea emoten daben Foru politikak defendidu ditu, espezieen arabera laguntza desbardinak emonez.

Mozinoa ez da onartu, EH Bildu eta Podemos Bizkaia taldeen aldeko 15 botoak baino ez ditualako jaso, Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak eta Bizkaiko Talde Popularrak, 33 boto, kontra bozkatu dabelako eta Talde Mistoa (1) abstenidu egin dalako.

Onintze Oleaga (EH Bildu) batzordekideak aurkeztu dauen azkenengo mozinoak, alde batetik, Bizkaiko Batzarren akordioa bilatzen zuen, ustelkeriaren kontrako burrukan erakundeen arteko koordinazioa eta alkarlana bermatuko dauen Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa martxan jarteko eta, bestetik, Foru Aldundiari eskaria egiteko, Eusko Legebiltzarrari eta Arbitraje Batzordeari, aitatutako ustelkeriaren kontrako erakundea sortzeko lege proposamenaren tramitazioan ezarri daben etetea altxatu daiela eskatu deien. Mozinoari, Podemos Bizkaia taldearen zuzenketaske bat gehitu jago, ustelkeria kasuak salatzen dituen personen babesa bermatzeko puntua gehituz.

“Gaur egungo mekanismoak ez dira nahikoak Administrazinoko ustelkeriari eta jardunbide desegokiei amaiera emoteko”, azpimarratu dau Oleagak, eta behin baino gehiagotan eskatu deutse taldeei, “ustelkeriaren kontra burrukatzeko prest ete dagozan” galderari “bai ala ez” erantzuteko. “Euskadin ez dago ustelkeriaren kontrako fiskaltzarik, eta epaileek eta fiskalek ez dagola baliabiderik esaten dabe” esan dau, bere aldetik, Neskutz Rodríguezek (Podemos Bizkaia).

Mozinoaren lehenengo puntua, Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa martxan jartea, generako taldeek be defendidu dabe, baina bigarren puntua izan da mozinoak aldeko eretxirik ez jasotea eragin dauena, Arbitraje Batzordearen aurrean Ustelkeriaren kontrako Euskal Legearen ganean planteau dan eskumenen gaia dala eta.

---

“Bigarren puntuaren helburua ez da zuzena”, esan dau Arturo Aldecoak (Talde Mistoa). Gauza bera esan dau Javier Ruizek (Bizkaiko Talde Popularra), “bigarren puntua ez dagola ondo zuzenduta” adierazoz eta bere taldearen abstentzinoa iragarritz.

“Ez da hondoko kontu bat, eztabaidea mugatzen dauen aurretiazko forma kontua dago hor”, adierazo dau Isabel Cadavalek (Euskal Sozialistak). “Ez gagoz ezeren kontra eta ez dogu ezer oztopatu gura”, zehaztu dau Jon Atutxak (Euzko Abertzaleak), eskumenaren gaia argitu arte itxaron behar dala gehitzeko. Mozinoa ez da onartu, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeen kontrako 30 boto, EH Bildu eta Podemos Bizkaia taldeen aldeko 15 boto eta 4 abstentzino (Bizkaiko Talde Popularra eta Talde Mistoa) jaso ditualako.

## **Agurrak**

Datorren martitzenean, apirilaren 2an, Batzar Nagusiak desegingo dira, eta ordezkariak batzarkide izaerea galduko dabe, Batza Iraunkorra osatzen dabenek izan ezik. Atzo eratu zan eta datorren apirilaren 2an indarrean sartuko dan Batza Iraunkor hori, Bizkaiko Batzar Nagusi barriak osatu arte gobernetan jarraituko dauen Mahaiko kideek eta Arautegi eta Gobernu Batzordeko ordezkariak osatuko dabe.

Bizkaiko Batzar Nagusietan barriro jarriko ez diran batzarkideek agur esateko baliu ditue euren berba egiteko txandak. Agurreko berbaldiak mota askotakoak izan dira, eukiari eta luzapenari jagokenez. Laburra izan dalako, azpimarragarria izan da Jesús Isasirena (Bizkaiko Talde Popularra): “Doazanai eta geratzen diranai, hasta luego Lucas”. Jon Atutxak be agur esan dau, bere taldeko eta oposizino ordezkariak euren lana eskertuz eta Batzar Nagusietako beharginei egindako lanarengaitik eskerrak emonez.

“Ez dot esango joateak penea emoten deustanik”, adierazo dau Josean Elgezabalek (Podemos Bizkaia), eta eskerrak emon deustaz “mobilizetan dan Bizkaiari”. Batzarkideak agurtu ditu, “kaleetan ikusiko gara” esanez. Antzera egin dau berba Neskutz Rodríguezek, eta “pena barik” doala esan dau. Kritikau egin dau batzuek bere taldea “inkompetentea” dala esatea ekimen garrantzitsuak defendidu dituanean, horreetako asko jentearengana heldu dirala adierazoz. Eta bere hurrengo jomugea Durangoko Udala izango dala aurreratu dau, “aukeratzen banabe”.

Oso hunkituta esan dau agur Marimar Rodríguezek (Euskal Sozialistak). Hasteko, bere taldekideen konfiantzea eskertu dau, eta, bukatzeko, Rosalía de Castroren poema irakurri dau. Talde bereko Josu Montalbánnek “danok maite zaituet”, esan dau, Batzarretan egin dituan 30 urteetan jarleku guztiak hartu dituala gogoratuazoz: behekoak, Gobernuoak eta oposizinoak.

Agintaldi honetan Batzarretako Mahaiko presidenteordea be izan dan EH Bilduko Joseba Gezuraga batzarkide beteranoak Batzarrak itziko dituala iragarri dau, eskerrak emonez eta batzarkide moduan emon dabezan hamabi urteak eta Eusko Alkartasunako zerrendetan be aukeratua izan dala azpimarratuz. Euskal Sozialistak taldeko batzarkide moduan zortzi hilebete baino egin ez dituan Isabel Cadavalek be agur esan dau, “politikak personak bizimodua hobetzen dauela” berretsiz, eta “ustelkeriaren orbana klase politiko osora ez zabaltzea” eskatuz.

---



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA  
27/03/2019

## **El último Pleno de las Juntas Generales de Bizkaia de esta legislatura aprueba por unanimidad la creación de mesas de artesanía con la participación de la Diputación, asociaciones y profesionales del sector para impulsar esta actividad**

Una propuesta concreta y participativa para impulsar el sector de la artesanía en Bizkaia ha logrado hoy el consenso de todas las fuerzas políticas en el último Pleno de esta legislatura, celebrado hoy en la Casa de Juntas de Gernika. Neskutz Rodríguez, apoderada de Podemos Bizkaia, ha presentado esta moción derivada de una interpelación y que, con la enmienda transaccional interpuesta conjuntamente por (Nacionalistas Vascos) y (Socialistas Vascos), ha conseguido 49 positivos, los de todos y todas las representantes de la Cámara foral vizcaína.

Las Juntas Generales de Bizkaia instarán a la Diputación Foral a la puesta en marcha de mesas de trabajo de artesanía, con la representación de las diferentes asociaciones de artesanía y personas artesanas con el objetivo de elaborar las líneas y ejes prioritarios del sector de artesanía en el territorio. El debate ha dejado patente la especial preocupación de la apoderada de Podemos Bizkaia, Neskutz Rodríguez, por el sector de la artesanía, por la cantidad de iniciativas y preguntas planteadas sobre el tema. Rodríguez ha defendido la necesidad de dinamizar y reforzar el sector con esta propuesta de mesas participativas porque, según ha subrayado, actualmente “hay un 63% de artesanos y artesanas que se están quedando fuera de las decisiones”.

Josu Montalbán (Socialistas Vascos) ha destacado que la artesanía “es una variante del arte utilizando las manos y productos naturales en la mayoría de los casos”. “Lo importante es potenciar el sector”, ha asegurado Aitor Ibarra (Nacionalistas Vascos), quien se ha congratulado porque “en esta ocasión hemos conseguido ser buenos artesanos de la política”.

En el turno de los grupos, Arturo Aldecoa ha defendido la necesidad de una propuesta “para un sector que sufre una grave crisis” y ha felicitado a Podemos por el trabajo realizado a favor de la artesanía. “Es muy importante respaldar al sector artesanal y echar una mano en la puesta en marcha de medidas en el día a día”, ha defendido Jesús Isasi (Grupo Popular Vizcaíno). Joseba Gezaraga ha anunciado el voto positivo de su grupo, EH Bildu, señalando que es un sector “dinámico, que tiene futuro y viabilidad, pero que necesita apoyos”.

### **Mociones sin apoyos suficientes**

El Pleno ha incluido además otras 2 mociones derivadas de otras tantas interpelaciones del último Pleno de Control, celebrado el pasado 27 de febrero, que no han logrado sumar suficientes votos. Mikel Kormenzana y David Lopategi (EH Bildu) han presentado la primera de ellas para instar a la Diputación Foral de Bizkaia para que “dentro de sus competencias, ponga en marcha medidas adicionales para hacer frente a la acumulación de terrenos forestales en Bizkaia”.

La mayoría de los grupos han llamado la atención sobre la falta de concreción de la propuesta. Por ello, en su segundo turno de intervención Kormenzana ha explicado que la moción incluía dos propuestas concretas: que la Diputación inicie una política de compra de terrenos forestales, comenzando por los terrenos colindantes a los de propiedad foral, a los que incluyan especies autóctonas o tengan un especial valor ambiental y la gestión conjunta de terrenos, “una medida que aquí no existe, pero que se hace en media Europa y que permitiría a propietarios que no quieren gestionar sus propios terrenos los ceda a la Diputación”.

Arturo Aldecoa (Grupo Mixto) se ha mostrado sólo en parte favorable a la moción. “Estamos en mitad de una crisis forestal y el camino para resolverla no es la compra de terrenos”. Eduardo Andrés (Grupo Popular Vizcaíno), tras decir que “esta moción no dice nada”, ha subrayado la apuesta de su grupo “por el sector maderero que da trabajo a más de 20.000 personas”.

“La situación actual es muy grave y no viene de casualidad, sino de las políticas de la Diputación Foral de Bizkaia y también por una serie de problemas externos”, ha criticado Josean Elgezabal, en nombre de Podemos Bizkaia. Por su parte, Marimar Rodríguez (Socialistas Vascos) ha defendido la necesidad de contar con la participación del sector para afrontar los problemas.

Jesús Lekerikabeaskoa (Nacionalistas Vascos) ha tildado las propuestas de EH Bildu de “contradictorias” y ha defendido las políticas forales que ya se aplican y que permiten que “cada propietario elija qué quiere plantar” con ayudas de diferentes cuantías en función de las especies.

La moción no ha sido aprobada al contar sólo con los 15 votos a favor de EH Bildu y Podemos Bizkaia, frente a los 33 votos en contra de Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos y Grupo Popular Vizcaíno. El Grupo Mixto (1) se ha abstenido.

Presentada por la apoderada Onintze Oleaga (EH Bildu), la última moción votada hoy proponía, por un lado, un acuerdo en la Cámara Foral de Bizkaia en torno a la necesidad de crear una Oficina de buenas prácticas y anticorrupción que garantice la coordinación y colaboración interinstitucional en la lucha contra la corrupción, y, por otro, instar a la Diputación foral para que requiera, del Parlamento Vasco y de la Comisión de Arbitraje, el levantamiento de la suspensión de la tramitación de la proposición de ley para la creación del citado ente vasco anticorrupción. A la moción se ha unido una enmienda de Podemos Bizkaia para incluir un punto para garantizar la protección a las personas que denuncien casos de corrupción.

“Los mecanismos actuales no son suficientes para terminar con la corrupción y las malas prácticas en la Administración”, ha destacado Oleaga, quien ha pedido en varias ocasiones a los grupos que contestaran “sí o no” a la pregunta de “si están dispuestos a luchar contra la corrupción”. “No existe en Euskadi una fiscalía anticorrupción y jueces y fiscales se quejan de la falta de medios”, ha dicho, por su parte Neskutz Rodríguez (Podemos Bizkaia).

El primer punto de la moción, la creación de una Oficina de Buenas Prácticas y Anticorrupción, ha sido defendido por el resto de los grupos, pero el segundo punto es el que ha provocado la falta de apoyos a la moción por la cuestión de competencia planteada ante la Comisión de Arbitraje sobre la Ley vasca contra la corrupción. “El segundo punto yerra en el objetivo”, ha dicho Arturo Aldecoa (Grupo Mixto). En la misma línea se ha pronunciado, Javier Ruiz (Grupo Popular Vizcaíno), diciendo que “el segundo punto no está bien enfocado” y anunciando la abstención de su grupo.

---

“No es una cuestión de fondo, hay una cuestión de forma previa que delimita el debate”, ha dicho Isabel Cadaval (Socialistas Vascos). “No se está en contra ni se quiere obstaculizar nada”, ha precisado Jon Atutxa (Nacionalistas Vascos) para añadir que hay que esperar a que se resuelva la cuestión de la competencia. La moción no ha salido adelante al recabar 30 votos contrarios de Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, 15 votos favorables de EH Bildu y Podemos y 4 abstenciones (Grupos Popular Vizcaíno y Mixto).

## **Despedidas**

El próximo martes día 2 de abril se disolverán las Juntas Generales y perderán la condición de apoderado o apoderada el conjunto de representantes, a excepción de quienes forman parte de la Junta Permanente. Esta Junta Permanente, que se constituyó ayer y entrará en vigor el próximo 2 de abril, está integrada por los miembros de la Mesa, que sigue gobernando hasta la constitución de las nuevas Juntas Generales de Bizkaia, así como por los y las representantes de la Comisión de Reglamento y Gobierno.

Apoderadas y apoderados que no volverán a ser representantes de las Juntas Generales de Bizkaia han aprovechado sus turnos de intervención desde la tribuna para despedirse. Los discursos han sido variados en contenido y extensión. Por brevedad, ha destacado la de Jesús Isasi (Grupo Popular Vizcaíno) que ha dicho: “A quienes se van y a quienes se quedan, hasta luego Lucas”. También la (despedida) de Jon Atutxa que ha agradecido su labor a representantes de su grupo y de la oposición y su ayuda, a trabajadores y trabajadoras de las Juntas Generales.

“No voy a decir que me da pena irme”, ha dicho Josean Elgezabal (Podemos Bizkaia), quien ha dado las gracias “a la Bizkaia que se moviliza” y se ha despedido con un “nos vemos en las calles”. En la misma línea, Neskutz Rodríguez ha afirmado irse “sin pena”, ha criticado que a su grupo se le haya tildado de “incompetente” cuando han defendido iniciativas importantes y muchas de ellas les han llegado de la gente y ha anunciado que su siguiente destino será el Ayuntamiento de Durango “si salgo elegida”.

Muy emocionada ha dicho adiós Marimar Rodríguez (Socialistas Vascos), que ha comenzado expresando su “gran orgullo y satisfacción por la confianza” de compañeros y compañeras de partido y ha terminado leyendo un poema de Rosalía de Castro. Josu Montalbán, de este mismo grupo, se ha despedido con un “Os amo a todos y a todas”, tras recordar que en los 30 años de apoderado ha ocupado todos los escaños: los bajos, los de Gobierno y los de la oposición.

Otro veterano juntero de EH Bildu, Joseba Gezuraga, que en esta legislatura además ha sido vicepresidente de la Mesa, ha anunciado que dejará la Cámara dando las gracias y destacando sus doce años como apoderado y su elección en diferentes listas de partidos como Eusko Alkartasuna. Tras sólo ocho meses como juntera de Socialistas Vascos se ha despedido Isabel Cadaval, asegurando haber reafirmado “que la política mejora la vida de las personas” y pidiendo que “no se extienda la mancha de la corrupción a toda la clase política”.

---